



AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 16an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi maiatzaren hamaseian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2019ko apirilaren 11n buruturiko saioari dagokion akta.

2.- INSTANTZIAK

2.1) A.U.A.k, 02-092 partzelara ur hornidura hodia pasa nahi dutela, Gipuzkoako Urak-en ezarritako baldintzetan, eta hodi hori herri bidearen kontra sartzeko proposamena egiten du, lehen itxitura dagoen tokian. Hodi berria sartu ondoren, itxitura berria egiteko baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da.

2.2) M^oC.L.G.k, Uztapide plaza 2an duen lokalean ura jartzeko baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.3) A.G.A.k, Elkotatik ganaduentzako ura jartzeko baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.4) K.I.L.k, Gurutzeaga kalea 5 1.ezkerra etxebizitzan leihoa aldatzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.5) J.J.G.E.k, 03-31 partzelan baratza egokitzeko bidea egiteko eskaerari Udalak erantzun zion. Idatzian eskatuta bezala, argazkiak aurkezten ditu eta adierazten du lan horiek ez dutela suposatzen bidea handitzea, konpontzea baizik. Horrela, lan horiek egiteko baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.6) A.A.G.E.k, Aizarnako ludoteka berritzeko asmoarekin proiektu parte hartzaile bat burutu dutela dio, auzoko haur eta gurasoen artean. Horrela lan batzuk egin dituzte, baina prozesuak emandako egitura berri eragozten die ludoketaren zoruak. Estali gabeko gunea umeak jolasean ibiltzeko oso hotza dela eta ez dela batere erabilgarria diote. Beraz, zoru guztia estaltzeko Udalarik 500-600 euroko dirulaguntza ematea eskatzen du elkarteak. Egur itxurako zoru laminatuaren hornikuntza gastua bere gain hartzea onartu du Zestoako Udalak. Material hau tokian bertan jartzea, A. A.G.E.k bere gain hartuko duela hitzartu du Udalarekin.

2.7) J.L.S.I.k, Zubimusun duen txabolan arratoi asko ibiltzen direla eta Udalarik botika urtean bi alditan baino gehiagotan emateko eskatu zion. Udalak ezezkoa eman ondoren, azaltzen du arratoiak Zubimusun dauden konpostagunetik doazela eta Udalarik eskatzen dio egoera hori kontutan harzea eta botika gehiagotan ematea. Zubimusuko konpostaguneari arratoiekin arazoa badago, herriko arratoinen aurkako mantenu orokorra eramaten duen enpresari deituko zaio, konpostaguneari ondoan tratamendua egiteko. Bestalde, aurretik hartutako erabakia mantentzen du Udalak, eta eskatzaile bakoitzari urtean 2 aldiz emango zaio arratoinen aurkako botika.

2.8) Z.O.yP., Arteaga auzunea 14 eraikinaren ondoan apirilaren 14an kontainerra jartzeko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da.

2.9) L.I.A.k, U. dendari eginiko soinuaren probaren emaitzak aurkezten ditu. U. dendan egindako neurketen emaitzak honakoak dira:

- Aireztapen orokorraren instalazioa: neurketaren balioek indarren dagoen legedia betetzen dute.
- Motorren gela, kamerak, izozgailua eta hotzagiluak: neurketaren balioek indarrean dagoen legedia betetzen dute.
- Ate irristakorra (corredera): neurketaren balioek indarrean dagoen legedia betetzen dute.
- Pertsianaren irekiera eta itxiera: neurketek ez dute indarrean dagoen legedia betetzen.
- Kaxa erregistradoraren señaile akustikoa: neurketaren balioek indarrean dagoen legedia betetzen dute.

Erabaki da ontzat ematea L.I.A. enpresak U. dendari eginiko soinu probaren emaitzak. Jardurari dagozkion soinu-baldintzak betetzen ditu. Sarrerako pertsianaren neurketa baloreek, gaur egungo legediak ezarritako parametroak gainditzen dituela egiaztatu da. Nahiz eta pertsianarekin irekiera eta itxiera egunean zehar oso puntualak izan, jardueraren titularrak neurriak hartu beharko ditu, honen soinu emisioa txikitzeko. Azkenik, J.M.I.G. bizilagunarekin bilera egingo da Zestoako Udalean L. enpresak aurkeztu duen txostenaren kopia bat emateko eta probaren ordainketa zehazteko.

2.10) Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, GI-4271 errepidean "Lasaoko luzapena" tartean egingo diren lanen berri ematen du: erroadura fresatu eta geruza berria zabaldu, eta, azkenik, seinale horizontalak berriro pintatu. Obra honen berri eman zaio hirigintza batzordeari.

2.11) J.A.O.O.k, 05-012 partzelara tomarik egokienetik ura hartzeko baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.12) J.U.A.k, Karmengo Amaren errepidea 12an duen txabolan portxea egiteko porposamena aurkezten du. Baimena ematen da fatxada nagusiaren aurrean 9,69 m²-tako estalpea (portxea) egiteko. Estalpe honek aurretik zegoen biltegia ordezkaturiko du eta, ondorioz, ez da eraikitako azalera handitzerik izango. Estalpe honi ezingo zaizkio alboak itxi eta etxeko berritze lanen obra amaierako dokumentazioan estalpe honen kokapena eta ezaugarriak adierazi beharko dira.

2.13) E.Z.O.k, Portale kalea 7ko Jabego Elkartearen izenean, Portale kalea 7an igogailua zero kotara jeisteko obretako udal baimen eskaera egiten du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.14) P.G.A.k, 2019ko otsailaren 7an sarrera eman zitzaion Zestoako Udalean Z. baserriko berrikuntza obren obra amaierako dokumentazioari. Lehen erabilera baimena ematea erabaki da.

2.15) M.A.E.SLPU, J.A.O.n izenean, Aizarnako E. baserriko obrak egiteko udal baimena eskatu zuen. Ondoren, D.C.Os. arkitektoak izenpeturiko exekuzio proiektua aurkeztu zen 2019ko apirilaren 24an Zestoako Udalean. Erabaki da ontzat ematea arkitektoak eginiko exekuzio proiektua. Hala eta guztiz, obra amaitu ondoren, obra amaierako dokumentazioan hainbat gai zehaztu beharko dira.

2.16) Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, Lasaoko luzapena errepide zatiaren inguruko idatzia aurkezten du. Obra honen berri eman zaio hirigintza batzordeari.

2.17) Zestoako Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa, Irao baserriaren inguruko lurzoru urbanizaezinari eta Sastarrain baserri eskolari dagokiona. 2019ko apirilaren 9ko Diputatuen Kontseiluaren akordiora egokitutako testu bateratua. Eusko Jaurlaritzak eskatu bezala, datorren udal batzarrean Zestoako Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa, Irao baserriaren inguruko lurzoru urbanizaezinari eta Sastarrain baserri eskolari dagokiona onartzea proposaturiko da.

2.18) J.L.E.A.k, Artzubia aldea ibardiaren berreskuperatze eta hobetze lanen apirileko planoak aurkezten du. Kamioi erregistroa jaso izanaren adierazpena egitea erabaki da.

2.19) LZB Arkitektura Koop. Elk.Txikiak, Aizarnako Urrutikoetxea kalea 2, Aizarnan kokatutako O.Ezk. baserria eraberritzeko obra baimena eskatzen du. Horretarako baserria eraberritzeko oinarritzko proiektua aurkezten du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.20) J.A.E.k, P. y C.E. SL sustatzailearen izenean, nabe industrialaren exekuzio proiektua aurkezten du, Agote auzoa 11n eraikitzeko. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.21) Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak, Zestoako Udalak gizartearentzat egiten diren lanetarako plaza bat egokitzeke interesik duen aztertzea eskatzen du. Zestoako Udalak gizartearentzat egiten diren lanetarako plaza bat egokitzea onartu du.

2.22) Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, Arroabeko autobus geltokiaren egokitzeke dirulaguntzaren inguruko idatzia aurkezten du. Arroabeko autobus geltokia egokitzeke eman den dirulaguntzaren berri ematen da. Emandako dirulaguntza guztira 27.238,73 eurokoa da. Horrela, zenbait teknikori aurrekontua eskatuko zaizkie, obrak esleitzeko, idatzi behar den proiektua egiteke zenbateke kostua duen jakiteke.

2.23) Toribio Altzaga kalea 14ko lur zatiaren lagapena egitea. F.P.A.jaunari Toribio Altzaga kalea 14 zk.ko lur zatiaren lagapena egiteke izenpetu behar den aktaren kopia bidaliko zaio, eta bera ados egonez gero, hitzordua jarriko da akta sinatzeko.

2.24) Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, M. T. S.L.ren jarduerari ezarritako neurri zuzentzaileak igortzen ditu. Eskaturiko udal jarduera lizentzia ematea erabaki da. Horretarako hainbat baldintza eta neurri zuzentzaileak ezartzen dira.

2.25) Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, G.F.S.L.ren jarduerari ezarritako neurri zuzentzaileak igortzen ditu. Udalak eskaturiko udal jarduera lizentzia ematea erabaki du. Horretarako hainbat baldintza eta neurri zuzentzaileak ezartzen dira.

2.26) N.P.H.k bere kotxean fundizioko arrastoen oxidoak eginiko kalteen berri ematen du. Jakinaraziko zaio Udala Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin harremanetan dagoela gai honen inguruan eta ikuskaritzak egin direla GRI Casting enpresan, oxido arrastoen jatorria aurkitzeko. Horrez gain, gai honi jarraipena egingo zaio.

2.27) I.A.A.k, bere kotxea herdoil pinportaz josita dagoela eta Eusko Jaurlaritzak GRI Castings enpresan eginiko ikuskaritzaren emaitzen kopia bat eskatzen du. Jakinaraziko zaio Udala Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin harremanetan dagoela gai honen inguruan eta ikuskaritzak egin direla GRI Casting enpresan, oxido arrastoen jatorria aurkitzeko. Horrez gain, gai honi jarraipena egingo zaio.

2.28) E.C.S.L.k, GRI Castings enpresatik ateratzen den herdoilak langileen kotxeetan sorturiko kalteen berri ematen du. Jakinaraziko zaio Udala Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin harremanetan dagoela gai honen inguruan eta ikuskaritzak egin direla GRI Casting enpresan, oxido arrastoen jatorria aurkitzeko. Horrez gain, gai honi jarraipena egingo zaio.

2.29) I.U.k, GRI Castings enpresaren isurketen inguruko idatzia aurkezten du. Bertan apirilaren 12an eta maiatzaren 8an ateratako argazkiak gehitzen ditu. Jakinaraziko zaio Udala Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin harremanetan dagoela gai honen inguruan eta ikuskaritzak egin direla GRI Casting enpresan, oxido arrastoen jatorria aurkitzeko. Horrez gain, gai honi jarraipena egingo zaio.

2.30) L.E.k, Arteaga auzunea 12 atzekaldeko zuhaixkak moztea Udalaren ardura den galdetzen du. Zuhaixken argazkia atxikitzen dio eskaerari. Zuhaixka horiek k Arteaga 11-12 zk.etan dauden etxebizitzak exekutatu zirenean landatuak izan ziren. Udalak ulertzen du, zuhaixka horien helburua Arteaga 11 eta 12 zk.etakoko behe solairuko etxebizitzaren pribatutasuna bermatzea dela. Honegatik guztiagatik, zuhaitz horien mozketak ez dagokio Zestoako Udalari, jabegoen komunitateari baizik.

2.31) N.K.k, Gesalaga kaleko E. janaridendak deskarga egiten duenenan ateratzen duen zarataren inguruko idatzia aurkezten du. Bertan dio nagusiarekin hitz egin dutela, Udalak ordutegia finkatzeko duela eta gutxienez goizeko 7:30ak arte ez hastea eskatzen du. Udalak erabaki du E. janaridendako jardueraren titularrarekin biltzea eta jasotako kexen berri ematea. Bilera honen helburua, kexan azalduriko arazoari irtenbide bat aurkitzea izango da.

2.32) A.H.k, G.E.ko A. E.ren izenean, Endoia eta herrigunea lotzen duen errepideko konponketa eta ekintza planarekin desadostasuna adierazten du. Honela, ondorengo eskaera egiten du:

- a) Errepidea estutu den alde horretan baranda edo antzeko zerbait jartzea.
- b) Balizko lurjauziak ekiditeko egin beharreko lanen inguruko hausnarketa eta martxan jartzea.
- c) Endoia eta gunea urbanoa lotzen dituen errepidearen mantentze eta hobetze lanen aurreikuspen, plangintza eta aurrera eramatea.

Honako erabakiak hartu dira:

a) Errepidea estutu den alde horretan baranda edo antzeko zerbait jartzea. Lur-jausia egonkortu den puntu horretan bionda metaliko bat jartzea erabaki du zerbitzu sailak eta enpresa bati lan hori egiteko agindua emana dago. Epe motzean babes metalikoa jarrita egongo da.

b) Balizko lurjauziak ekiditeko egin beharreko lanen inguruko hausnarketa eta martxan jartzea. Lur-jausia egin den puntu horretan, gunea egonkortzeko hartu den eraikuntza sistemak (mikropiloteak) erabateko bermea ematen dio Udalari. Garbi dago urbide naturalak eta kunetak garbi edukitzeak bidea egoera onean mantentzen laguntzen dutela, baina Zestoako Udalak dituen baliabide urriek mugatu egiten dituzte mantenu lan horiek.

c) Endoia eta gunea urbanoa lotzen dituen errepidearen mantentze eta hobetze lanen aurreikuspen, plangintza eta aurrera eramatea.(Foru Aldundiak herri bideak konpontzeko ematen dituen dirulaguntzak) Zestoako Udalak bere jabetzakoak diren herri bide kilometro ugari ditu (50 km-tik gora). Urtero aurkezten ditu konponketa proiektuan Gipuzkoako Foru Aldundiak herri bideak konpontzeko ateratzen dituen dirulaguntza deialdietara. Zein proiektu aurkezterako garaian lehentasuna ematen zaio bidearen egoera orokorrari (zenbati herri bide oso egoera txarrean daude) eta baita herri bideak lotzen dituen 1. sektoreko jarduerak dituzten baserri kopuruari ere.

2.33) U.E.L.k, Arroaerrekako lau etxebizitzetara joateko bidea konpontzeko eskaera egin zuela eta oraindik erantzunik ez duela jaso dio. 2003 urtean Zestoako Udal Batzarrak Zestoako herri bideen inbentarioa aurkeztu zuen. U.E.k aipatzen duen bide zati hori, ez da herri bide bezala azaltzen inbentarioan. Beraz, 2014ko uztailaren 1ean, Tokiko Gobernu Batzordeak hartu zuen erabakiaren inguruan informazioa lortuko du Udalak, ez baita ulertzen zergaitik erabaki zen 2014. urtean bide zati hori konpontzea, inbentarioan herri bide bezala agertzen ez denean.

2.34) I.G.M.k, Narrondon dagoen kotxeen salmentaren jardueraren titularitate aldaketa eskatzen du. Ikusirik, gaur egunera arte, kotxeen salmentan jarduera egon dela Narrondo auzoko lokal horretan, eta I.G.M. jaunak jarduera berdina mantenduko lukeela, titularitate aldaketa onartzen da. Gogorazten zaie titular berriei, 2011ko uztailaren 1eko Zestoako Zestoako Udaleko Alkatearen Dekretuz emandako jarduera baimenaren baldintzak edo neurri zuzentzaileak bete beharko dituztela.

2.35) U.U.A.k, M.A.A.S.L.k AB.2.B Azkue partzelan estaldura-markesina bat eraikitze lanak legeztatze eskaeraren ebazpena igortzen du. Markesina zein tokitan kokaturik dagoen ez da garbi geratu batzordean. Gai honen inguruan informazio gehiago lortuko da eta datorren hirigintza batzordean aztertuko da.

3. BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK

- 2019ko maiatzaren 9an, Kultura Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko apirilaren 2an, Ongizate Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.

- 2019ko maiatzaren 7an, Ogasun Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.

4.- ALKATETZA EBAZPENAK. - Honako Ebazpenen berri eman da:

- * 129 zk, E.S.L.ri udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egiteko lizentzia ematen zaio.
- * 130 zk, I.E.L.ri lanaldia aldatzea Aste Santuko oporrak ordezkatzeko.
- * 131 zk, M.G.M.i behin-behineko kontratua egitea B.T.en lizentzia eguna ordezkatzeko.
- * 132 zk, B.Y. Zestoako Baratze Parkeko 18 zenbakidun ortua erabiltzeko lizentzia ematea.
- * 133 zk, J.A.Z.i arriskutsua izan daitekeen animalia edukitzeko udal baimena ematea.
- * 134 zk, N.O.A. bitarteko funtzionario izendatzea, Gizarte langile lanpostuan aritzeko, M. A.A.n gaixotasun baja amaitu arte.
- * 135 zk, I.E.L.i Zestoako Baratze Parkeko 20 zenbakidun ortua erabiltzeko lizentzia ematea.
- * 136 zk, Automobilgintzako erregaia hornitzeko kontratazioari atxikitzea, Aldundia esparru akordioa formalizatu ondoren.
- * 137 zk, Santa Engrazia bidea 4an kokatuta dagoen G. bi bitzitzako eraikinari lehen erabilera baimena ematea.
- * 138 zk, Bide bazterren sastraka garbiketaz erbitzuen kontratazioarako plegu administratiboan onarpena.
- * 139 zk, A.A.K.i lanaldia aldatzea %50erko portzentaira maiatzaren 6tik aurrera.
- * 140 zk, Kanposantotik kendutako loreen ordainketa agindua M^aIs.R.N.i.
- * 141 zk, Kanposantotik kendutako loreen ordainketa agindua M^aA.S.P.i.
- * 142 zk, sozio-ekonomia arloko aholkularitza zerbitzua esleitzeko ebazpena.
- * 143 zk, I.U.G. bitarteko funtzionario izendatzea, Administrazio Orokorreko Teknikari lanpostuan aritzeko Idazkaritza Sailean.

5.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak, aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunari buruzko irizpideak igortzen ditu.
- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Tokientitateek 2018ko ekitaldian onartutako kredituen aitorten estrajudizialen espedienteen fiskalizazioari buruzko informazioa igortzen du.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua eta Zestoako Udalaren arteko hitzarmena, mendetasun-egoerekin eragindako beharrezanean aurrea hartu eta erantzuko zerbitzuak eskaintzeko.
- Ignacio Galdona Guisasolak, Urolako trenaren itxieraren inguruko txostena aurkezten du.

6.- GALDERA ETA ERREGUAK

Ez dago.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa goizeko 12:02ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e

Alkateak,